



2022KO BEGIRALEEN IZEN-EMATEA

2022ko UDALEKU IREKIetan hezitzaile lanetan aritzeko deialdia luzatzen dizuegu. Hautagaiek bete behar dituzten irizpideak honako hauek dira:

- 1) **18 urtetik gorakoak izatea edo 2022 urtean betetzea.**
- 2) **Seguran erroldatua egotea.**
- 3) **EGA edo HABE-ren 3.maila izatea. Eduki ezean, euskara ezagutza eta erabilera maila altua izatea baloratuko dira.**

Aurretik aipatutako baldintzak betetzen dituztenen artean, aukeraketa lehentasun hauen arabera egingo da:

- 1) **Hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak izatea: magisteritza, pedagogia, psikologia, gizarte-hezkuntza, gizarte integrazioa eta haur hezkuntzako goi-mailako titulua edo begirale titulua. Seguran, aurreko urteetan, lan honetan aritu direnak (gehienez 3 urte hartuko dira kontuan).**

Talde honetako baldintzekin behar diren hautagai kopurua beteko ez balitz, hurrengo taldekoak hartuko lirateke, hurrenez hurren:

- 2) Hezkuntzarekin zerikusia duten **ikasketak burutzen aritzea** (goian aipatutakoak) eta Seguran, aurreko urteetan, **noizbait lan honetan aritu direnak.**
- 3) Hezkuntzarekin zerikusia duten **ikasketak ez izatea** (goian aipatutakoak) eta Seguran, aurreko urteetan, **lan honetan aritu direnak.**
- 4) Hezkuntzarekin zerikusia duten **ikasketak burutzen aritzea** (goian aipatutakoak) eta Seguran, aurreko urteetan **lan honetan aritu ez direnak.**
- 5) Hezkuntzarekin zerikusia duten **ikasketak ez izatea** (goian aipatutakoak), Seguran, aurreko urteetan, **lan honetan aritu ez direnak, lanean dihardutenek eta gutxienez 16 urte beteta edo aurten beteko dituztenak.**

Oharra: hala balegokio, talde bakoitzeko aukeraketa zozketa bidez egingo da.

Izen-emateko bidali zure curriculuma gazteriasegura@gmail.com helbidera, ekainaren 3rako.
--

Aurkeztu beharrekoak: Curriculum-a, titulu edo agirien kopiak, NAN-aren kopia eta osasun-txartelaren kopia. (Aurreko urteetan aurkeztu EZ dituztenentzat bakarrik)

Aukeratuek ekainaren 7 edo 8an jasoko dute jakinarazpena whatsapp bidez. Itxaron zerrenda balego, ekainaren 9an goizeko 11:00etan, udaletxean egingo litzateke zozketa.